

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Donibaneko osasun-zentroak lideratuko du “Auzoko adinekoaren aldeko ituna” proiektua

Dokumentua gaur sinatu dute Donibaneko osasun-zentroak, Iruñeko Udalak eta beste zazpi erakundek, biztanleen % 33k 65 urte baino gehiago dituen zonalde honetako zahartzearen erronkari aurre egiteko asmoz

Osteguna, 2018.eko martxoak 22

Iruñeko Donibane auzoa dugu biztanleriaren zahartze aktiboa bultzatzeko ekimen berri baten agertoki, biztanleen % 33k 65 urte baino gehiago dituen zonalde honetako osasun-zentroaren lidergopean. Osasun-zentroak bultzatutako “Auzoko adinekoaren aldeko ituna” deritzonak Iruñeko Udala eta hainbat elkarte eta erakunde ditu partaide, zahartze aktibo eta osasungarria sustatzearen aldeko parte-hartze bidezko konpromiso aktiboari lotuta.



Donibaneko osasun-zentroan aurkeztutako programa berritzailea ezagutzera emateko ekitaldira bildutakoak.

Dokumentua gaur goizean sinatu dute bederatzi erakunde parte-hartzaileen ordezkariak: Iruñeko alkate Joseba Asironek, Donibaneko osasun-zentroko María Eugenia Ursuak, San Juan Xar auzokide-elkarteko Koldo Osinagak, Martin Azpilcueta Merkatarien Elkarteko Anuntxi Menak, SDRC Anaitasunako Miguel Ollacarizquetak, AD San Juan-eko Miguel Angel Irigoyenek, Caritas Donibaneko Luis Aramendiak, Oskia Erretiratuen Elkarteko M^a Ángeles Avizandak eta Nafarroako DYAKo Ángel Manuel Chuecak. Ekitaldian izan dira, halaber, Osasun Departamentuko zuzendari nagusi Luis Gabilondo, osasun-zentroko profesionalak eta auzoko bizilagunak.

Ekimen honen bitartez, erantzun egokia eman nahi zaie biztanleria zahartuaren behar soziosanitarioei, betiere norberaren egoera ekonomikoari, osasunari nahiz mendekotasunari lotutako heterogeneotasunezko aldagaiak kontuan hartuz, eta amankomunean dituzten



ezaugarriei arreta eginez: narriadura fisiko eta kognitibo handiagoa, norberaren kabuz baliatzeko aukera murriztagoak 80 urtetik aurrera, urteetan aurrera egin ahala gutxituz eta ahulduz doazen gizarte-harremanak, balizko isolamendu soziala eta bakardadea, eta tratu txarra pairatzeko arrisku handiagoa.

Erakunde laguntzaileen ordezkariek, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Instituzio, erakunde eta elkarten arteko lankidetzak

Proiektu honek beste maila batzuekiko lankidetzak-esparru berri bat finkatzeko aukera eskainiko du, baterako erantzukizuna aitortuz, elkarren ezagutzatik abiatuz eta sinatzaile bakoitzak eskain ditzakeen esperientziak eta aukerak profitatuz.

Dokumentuak berariazko helburuak eta horiek betetzeko ekintzak eta neurriak bildu ditu. Helburuen artean, honako hauek nabarmen daitezke: parte-hartzea sustatzea, adinekoen ikasketa erraztea, prestatzaile gisa duten balioa bultzatzea, bizimodu osasungarriak, ariketa fisikoa, elikadura osasuntsua eta estimulazio kognitiboa sustatzea; osasun zerbitzuetan nahiz zerbitzu sozial eta komunitarioetan arreta segurtatzea; adinekoen gaitasun funtzionala eta bizi-kalitatea hobetzea; arriskuan dauden adinekoak detektatzeko sistema eraginkorrek bultzatzea; zaintzailearen bizi-kalitatea hobetu eta zaintzaren inpaktua murriztea, zaintzaileari laguntzeko zerbitzuak bultzatzea; gai ekonomiko eta finantzarioei buruzko aholkularitza; adinekoenganako tratu ona sustatu eta abusuzko egoeren inguruko kontzientzia soziala areagotzea; ingurune garbi eta osasungarriak, gizarteratzaileak eta seguruak sortzea; norberaren etxe barneko zahartzea bultzatzea; aisialdiko jardueretan nahiz ekitaldi orokorretan adinekoen parte-hartzea sustatzea; eta adinekoen beharrei nahiz zahartzearen baldintzatzaileei buruzko ikerketa bultzatzea.

Jarduerak

Aipatutako helburuak lortzeko, Itunak hainbat esparruri dagokion ekintza-programa diseinatu du, parte hartzen duten erakundeen jarduera-esparruen arabera; horrela, auzoko boluntarioritza sustatzea aurreikusi da, aisia, kirola, teknologia berriak eta oroimena landu eta garatzeko tailerrak antolatuz; baita adinekoen urteetako ezagutza belaunaldi berriei transmititzea ahalbidetuko dieten hiriko baratzak, jubiloteka bat eta denboraren banku bat sortzea ere, besteak beste.

Halaber, gai ekonomiko eta finantzarioei buruzko laguntza eta sostengua eman zaie, abusuzko egoeren inguruko kontzientzia soziala areagotuz. Irisgarritasun eta segurtasun fisikoari dagokionez, auzoko kaleetan dauden gune beltzei buruzko mapa egitea aurreikusi da, baita bide-segurtasunari edo etxe barneko segurtasunari buruzko informazio-hitzaldiak ere, eta etxebizitzak zaharberritzeko laguntza publikoak deituko dira.

Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren aldeko Estrategiak

Ekimen hau Nafarroako 2017-2022rako Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren aldeko Estrategiari atxikita dago, osasun oneko bizitza-itxaropena areagotzeko eta mendekotasunaren prebalentzia murrizteko xedez. Proiektu hau lehentasunezkoa da foru exekutiboarentzat, hogeitau urte barru Nafarroako biztanleen % 25ek 65 urte baino gehiago izango dituela iragartzen duten aurreikuspenen harira.

Estrategia hau, osasuna Foru Administrazioako departamentu guztietan txertatzea xede duen Osasun arloko Departamentu-arte Kontseiluak sustatu du, eta 60 ekintza-ildo baino gehiago ditu. Oinarrizko hiru ardatz hauen inguruan egituratuta dago: bizitza-proiektu aktibo eta osasungarriak, Adinekoekin adiskidetsuak diren inguruneak eta Eskualde-garapena eta Zerbitzu eta prestazio sozial eta ekonomikoak. Estrategiaren garapen operatiborako parte-hartze bidezko prozesu zabala egin da gaiarekin lotutako Eragileekin batera, baita 2018-2019ko Ekintza-Plana ere, zeinetan Adinekoen Eskola eta Zaintzaileen Eskola gisako ekintzak bultzatu diren, besteak beste, edota adinekoekin adiskidetsuak diren hiri, herri eta auzoen sustapenerako dirulaguntza-deialdiak Tokiko Agenda 21ean sartu diren, herri eta auzo mailako tokiko proiektuak bultzatzeko xedez.

Halaber, itun hau Iruñeko Udalak OMEk babestutako Hirugarren Adinarekin Adiskidetsuak diren Hirien Sarearekin egin duen bat-egiteari atxikita dago. Bat-egite honi jarraiki, Iruñeko Udala Adinekoentzako Plan Zuzendaria lantzen ari da, adineko pertsonen aniztasuna babesteko, adin guztietako pertsonen

partekatutako gizarteratze-kultura bultzatzeko eta zahartze aktiboari lotutako beharrei eta lehentasunei malgutasunez erantzun ahal izateko.